

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

MENDAROKO UDALA

Mendaroko eguneko zentroko Erregelamenduaren behin betiko onespena.

Mendaroko udaleko udalbatza ohikoak, 2024ko urriaren 29an egindako bilkuran, behin-behineko onespena eman zion Mendaroko eguneko zentroko erregelamenduari.

Erabaki horretan xedatu zen Erregelamendua behin betirako onartutzat joko zela jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ezean.

Erregelamendu hau hogeita hamar eguneko epean jendaurrean jarri da, 2024ko azaroaren 8an, 216 zenbakizko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako iragarkiaren bidez, eta ez zenez aurkeztu inongo alegazio edo iradokizunik, aipatutako erregelamendua behin betikoz onartutzat ematen da.

Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, testu oso-oso argitaratzen da.

Orok ezagutu dezaten Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik indarrean sartzeko argitaratzen da adieraziz, erabaki hau behin betikoa dela eta amaiera ematen diola administrazio-bideari. Interesatuak erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hura argitaratu ondoreneko bi hilabeteko epean.

Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Mendaro, 2024ko abenduaren 9a.—Enez Ezenarro Arriola, alkatea. (9026)

Mendaroko eguneko zentroko Erregelamendua

I TITULUA

ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Erregelamenduaren xedea.

Arautegi honen xedea da laguntza behar duten adinekoei eguneko zentroko udal zerbitzuaren prestazioa arautzea, laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretuko 1.2 artikuluan duen esanahiarekin:

Mendekotasunen bat duten adinekoentzako eguneko zentrokat hartuko da, haien izena edo titulartasuna edozein izanda ere, eguneko arreta-programa individualizatua eskaintzen dien establezimendu oro, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beste pertsona batzuen laguntza behar duten 60 urtetik gorako 5 pertsonari edo gehiagori eskaintzen diena, bai eta inguruabar pertsonalak eta sozialak direla-eta kolektibo horren pareko izan daitezkeenak ere, horretarako bideratutako espazio eta instalazio batean, langile eta jarduera-programa propioekin.

AYUNTAMIENTO DE MENDARO

Aprobación definitiva del Reglamento del centro de día de Mendaro.

El Pleno ordinario celebrado el día 29 de octubre de 2024 aprobó inicialmente el reglamento del centro de día de Mendaro.

En dicho acuerdo se establecía que el Reglamento se consideraría definitivamente aprobado si durante el plazo de información pública no se presentaran alegaciones.

El presente reglamento se ha sometido a información pública durante el plazo de treinta días, mediante anuncio publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 216 del 8 de noviembre de 2024, y no habiéndose presentado ninguna reclamación o sugerencia al respecto, se da por aprobado definitivamente el referido reglamento.

A los efectos del art. 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro.

Lo que se publica para general conocimiento y para su entrada en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, con la indicación de que el acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

Todo ello, sin perjuicio de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Mendaro, a 9 de diciembre de 2024.—El alcalde, Enez Ezenarro Arriola. (9026)

Reglamento del centro de día de Mendaro

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto del reglamento.

Es objeto del presente reglamento la regulación de la prestación del servicio municipal de Centro de Día para personas mayores dependientes, en la acepción dada por el artículo 1.2 del Decreto 202/2000, de 17 de octubre, sobre centros de día para personas mayores dependientes:

Se considerará centro de día para personas mayores dependientes, cualquiera que sea su denominación o titularidad, todo establecimiento que ofrezca un programa de atención diurna individualizada a 5 o más personas mayores de 60 años que necesitan la ayuda de otras para la realización de sus actividades de la vida cotidiana, así como a aquellas que por circunstancias personales y sociales puedan equipararse a las del mencionado colectivo, en un espacio e instalaciones destinados a tal fin, con un personal y unos programas de actuación propios.

Zerbitzua zeharkako kudeaketako erregimenean emango da, emakida bidez, une bakoitzean indarrean dagoen legeria sektorialak ezarritakoaren arabera.

Arautegi hau onartzerakoan, eguneko zentroko zerbitzua legeria honek arautuko du:

1. Abenduaren 5eko 12/2008 legea, gizarte zerbitzuei buruzkoa.
2. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
3. Urriaren 10eko 43/2006 Foru dekretua, apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretua aldatzen duena, menpekotasuna duten Gipuzkoako adinekoen plazak lortzeko eta esleitzeko araudia arautzen duena.
4. 64/2004 dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuko langile eta erabiltzaileen betebeharrak eta eskubideen gutuna arautzen duena eta iradokizun eta kexen araudia.
5. 202/200 Dekretua, urriaren 17koa, laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzkoa.
6. Apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretua, laguntza behar duten Gipuzkoako adinekoentzako plazak eskuratzeko eta adjudikatzeko erregimenari buruzkoa.
7. 39/2006 legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.

2. artikulua. Eguneko Zentroaren helburuak.

Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretuko 3. artikulua-aren arabera, hauek dira Udalaren eguneko zentroaren helburuak:

- 2.1. Helburu orokorra: Laguntza behar duten adinekoen eta senitartekoen bizi baldintzak egokiak izan daitezzen laguntzea, eta alderdi biei ahalik eta autonomia eta bizi kalitate handiena ematea.
- 2.2. Berriazko helburuak.
 - a) Laguntza behar duen adinekoak bere ohiko ingurunean segü dezala laguntzea.
 - b) Erabiltzaileen beharrei erantzutea, ahalik eta autonomia gehiena lortzeko behar diren programak garatuz.
 - c) Erabiltzaileen senideei beharrezko laguntza eta aholkuak ematea, adinekoak beren ingurunean bizitzen jarrai dezaten, eta zainketa lanak egiteko behar den jokabideari buruzko informazioa ematea.

3. artikulua. Aplikazio eremua.

- 3.1. Arautegi hau Udalaren eguneko zentroaren eremu espazialean eta funtzionalean aplikatuko da. Zentroa c/ Azpilgoeta, 32 zenbakian dago.
- 3.2. Arautegi hau aplikatuko zaie eguneko zentroan ematen diren zerbitzuen eta programen erabiltzaileei, zerbitzu eta programetako profesionalei eta zentroan diharduten boluntarioei.

Erregelamendu honen ondorioetarako, erabiltzailetzat hartzen dira zuzeneko hartzaileak eta prestazioa edo zerbitzua, eta, dagokion eskubidearen izaeragatik egokia den guztietan, zain-tzaileak. Ezgaitutako pertsonen kasuan, haien eskubideen erabilera beren legezko ordezkarien bitartez bermatuko da, indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzetan.

4. artikulua. Zerbitzuen katalogoa.

Mendaroko eguneko zentroa erabilera anitzeko zentro ireki bat da, laguntzaren bat behar duten adinekoen osoko atentzioa ematen diona. Horretarako, laguntza behar duten adinekoentza-

La prestación de este servicio se realizará en régimen de gestión indirecta mediante concesión, conforme a lo establecido en la legislación sectorial vigente en cada momento.

En la aprobación de este Reglamento, el servicio del Centro de Día se regirá por la siguiente legislación:

1. Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de servicios sociales.
2. Decreto 185/2015 de 6 de octubre de cartera de Prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
3. Decreto foral 43/2006, de 10 de octubre, por el que se modifica el Decreto Foral 20/2002, de 30 de abril, por el que se regula el régimen de acceso y adjudicación de plazas para personas mayores dependientes en Gipuzkoa.
4. Decreto 64/2004, por el que se aprueba la carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas.
5. Decreto 202/2000, de 17 de octubre, sobre los centros de día para personas mayores dependientes.
6. Decreto Foral 20/2002, de 30 de abril por el que se regula el régimen de acceso y adjudicación de plazas para personas mayores dependientes en Gipuzkoa.
7. Ley 39/2006 de 14 de diciembre de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia.

Artículo 2. Objetivos del Centro de Día.

Conforme al artículo 3 del vigente Decreto 202/2000, de 17 de octubre sobre centros de día para personas mayores dependientes, los objetivos del Centro de Día municipal son los siguientes:

- 2.1. Objetivo general: favorecer la existencia de condiciones adecuadas de vida entre las personas mayores dependientes y sus familiares, procurando el mayor nivel posible de autonomía y de calidad de vida para ambas partes.
- 2.2. Objetivos específicos.
 - a) Posibilitar la permanencia de la persona mayor dependiente en su entorno habitual.
 - b) Atender a las necesidades de las personas usuarias mediante el desarrollo de los programas adecuados para conseguir el máximo nivel de autonomía posible.
 - c) Ofrecer a las familias de las personas usuarias el debido apoyo y asesoramiento para que puedan seguir manteniéndolas en su medio, e informarles de las pautas necesarias para la realización de las labores de cuidado.

Artículo 3. Ámbito de aplicación.

- 3.1. Esta normativa se aplicará en el ámbito espacial y funcional del centro de día municipal. El centro está ubicado en c/ Azpilgoeta, 32.
- 3.2. El presente reglamento se aplicará a las personas usuarias de los servicios y programas que se prestan en el Centro, al personal profesional de los servicios y programas, así como al voluntariado que opere en el centro.

A los efectos del presente reglamento se entiende por personas usuarias, las destinatarias directas e la prestación o servicio y, siempre que resulte pertinente por la naturaleza del derecho del que se trate, las personas cuidadoras. En el caso de las personas incapacitadas, se garantizará el ejercicio de sus derechos a través de sus representantes legales, en los términos previstos en la normativa vigente.

Artículo 4. Catálogo de servicios.

El Centro de Día de Mendaro es un centro abierto polivalente que ofrece atención integral a personas mayores que presentan algún tipo de dependencia. Para ello cuenta con las siguientes

ko eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretuak ezartzen dituen nahitaezko prestazio hauek ditu:

- * Segimenduaren balorazioa.
- * Bitartekotza.
- * Arreta pertsonala:
 - Esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala.
 - Estimulatuzailea edo errehabilitatuzailea: funtzio kognitiboetako esku-hartzea.
 - Hezkuntzakoa: aisialdia eta hezkuntza- eta kultura-jarduerak.
 - Psikosoziala: funtzio psikoafektiboetan esku hartzea, eta, hala badagokio, portaera-nahasmenduak maneiatzeko laguntzak.
- * Garraio egokituia, etxetik eguneko zentrorako eta eguneko zentrotik etxerako joan-etorriak.
- * Familiari arreta ematea.

5. artikulua. *Ordutegiak eta arreta-egunak.*

Udal eguneko zentrok zerbitzua lanegunetan emango da, egunean gutxienez sei orduz, goizeko zortzietatik arratsaldeko zortzietara.

Ordutegi zehatza ezartzeko, erabiltzaileen beharrak, ezartzen den garraio-formula, joan-etorrietarako denborak eta egin beharreko joan-etorriak hartuko dira kontuan.

Urtean zehar, zentroa astelehenetik ostiralera egongo da martxan, uztailearen 26an (herriko jaiak), abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta jaiegunetan izan ezik, Gipuzkoako lan-egutegiaren arabera. Halaber, bazkaria egin arte zabalik egongo da abenduaren 24an eta 31n.

Mendaroko zaindariaren jaieguna larunbata edo igandea bada, egun hori «Trinitate Txiki» egunera aldatuko da (2025. urtean, ekainaren 16ra).

Mendaroko Udalak zerbitzuko egun eta ordu kopurua aldatu ahal izango du, antzemandako premiek hala gomendatzen dutenean.

6. artikulua. *Zerbitzu aukerak.*

Eguneko Zentrok zerbitzuan, ordutegi osoz egunero ematen den atentzioaz gain, beste aukera hauek egongo dira:

- Ez egunero: asteko egun batzuetara mugatzen da bertaraztea.
- Egunero orduka, jarduera eta/edo programa bat edo gehiago egiteko.

II TITULUA

MENDAROKO EGUNEKO ZENTROAREN ETA ERABILTZAILEEN ARTEKO HARREMANAREN ERREGIMEN JURIDIKOA

7. artikulua. *Mendaroko Eguneko Zentroan sartzeko erregimena.*

7.1. Eguneko Zentroan sartzeko prozedura.

Mendaroko Eguneko Zentroan sartzeko prozedura Gipuzkoako pertsona adinduentzat plazak lortzeko eta adjudikatzeko erregimena arautzen duen apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuko 6. eta ondorengo artikuluetan jasotakoa da.

Foru Dekretu horretan deskribatutako berezitasunak ahaztu gabe, oro har, prozedura interesatuek eskatuta hasiko da. Eskerra oinarritzko gizarte zerbitzuetan aurkeztuko dute, eskatzen den gainerako dokumentazioarekin batera. Prozedura Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunak ebartziko du.

prestaciones fijadas como obligatorias por el Decreto 202/2000, de 17 de octubre, sobre los centros de día para personas mayores dependientes:

- * Valoración de seguimiento.
- * Mediación-intermediación.
- * Atención personal:
 - Intervención socioeducativa y psicosocial.
 - Estimulante o rehabilitadora: intervención en funciones cognitivas.
 - Educativa: ocio y actividades educativo-culturales.
 - Psicosocial: intervención en funciones psicoafectivas, incluyendo, en su caso, ayudas para el manejo de trastornos del comportamiento.
- * Transporte adaptado, desplazamientos del domicilio al centro de día y del centro al domicilio.
- * Atención a la familia.

Artículo 5. *Horarios y días de atención.*

El servicio del centro de día municipal se prestará los días laborables, con un mínimo de seis horas diarias, de ocho de la mañana a ocho de la tarde.

Para establecer el horario concreto se tendrán en cuenta las necesidades de los usuarios, la fórmula de transporte que se establezca, los tiempos de desplazamiento y los desplazamientos a realizar.

A lo largo del año, el centro estará operativo de lunes a viernes, excepto el 26 de julio (fiestas patronales), el 25 de diciembre, el 1 de enero y los días festivos en función del calendario laboral de Gipuzkoa. Asimismo, permanecerá abierta hasta la celebración de la comida los días 24 y 31 de diciembre.

En el caso que el día de la fiesta patronal de Mendaro coincidiera en sábado o domingo, este día se trasladará al día de «Trinitate Txiki» (año 2025, 16 de junio).

El Ayuntamiento de Mendaro podrá modificar el número de días y horas de servicio cuando las necesidades detectadas así lo aconsejen.

Artículo 6. *Opciones de servicio.*

Además de la atención diaria en horario completo, existirán otras opciones de uso del servicio de Centro de Día:

- No todos los días: se limita la asistencia a unos días de la semana.
- Diariamente por horas, para la realización de una o más actividades y/o programas.

TÍTULO II

RÉGIMEN JURÍDICO DE LA RELACIÓN ENTRE EL CENTRO DE DÍA DE MENDARO Y LAS PERSONAS USUARIAS

Artículo 7. *Régimen de ingreso en el Centro de Día de Mendaro.*

7.1. Procedimiento de ingreso en el Centro de Día.

El procedimiento de ingreso en el Centro de Día de Mendaro es el recogido en los artículos 6 y siguientes del Decreto Foral 20/2002, de 30 de abril, por el que se regula el régimen de acceso y adjudicación de plazas para personas mayores en Gipuzkoa.

Sin perjuicio de las particularidades descritas en dicho Decreto Foral, con carácter general, el procedimiento se iniciará a instancia de los interesados. La solicitud se presentará ante los servicios sociales de base junto con el resto de la documentación requerida. El procedimiento será resuelto por el órgano competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

7.2. Eguneko Zentroan sartzeko baldintzak.

Eguneko zerbitzuetako ekipamenduetan sartzeko eskaera egin nahi duten adineko pertsonen baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) 60 urte beteta edukitzea.
- b) Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea eta bertan benetan bizi izatea eskabidea aurkezten den unean, edo Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan bizi eta erroldatuta egotearen ziurtagiria izatea eskaera egiten den unean.
- c) Mendekotasun egoeran dagoen pertsonatzat baloratuta egotea.
- d) Baliabidearen egokitasuna zehazten duen orientazio-txostena izatea, Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako adierazitako balorazio- eta orientazio-tresnaren bidez.

7.3. Sarbide-eskubidearen murrizketak.

- a) Osasun-laguntza espezializatua behar duten pertsonak, horrelako zerbitzuen berezko zuzkidurak baino asistentzia-maila handiagoko tratamendu edo teknika mediko edo erizainak behar dituztelako.
- b) Gaixotasun infekzio-kutsakor bat duten pertsonak, beste erabiltzaile batzuei kutsatzearen prebentzioa bermatu ezin zaiena, zentroak prebentzio unibertsaleko neurriak hartzen baditu ere.

- c) Portaera-nahasmendu larriak dituzten pertsonak, baldin eta horiek zentroaren funtzionamendu normala desitxuratzeko badute, zentroko bizikidetzari normalari eragiten badiote eta hirugarren pertsonen edo beren buruaren segurtasuna arriskuan jarzen badute.

8. artikulua. Erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa.

Eguneko Zentroko erabiltzaileek ekarpen ekonomikoaren eta progresibitatearen printzipioen arabera ordaindu beharko dituzte zerbitzuaren kostuak, Gipuzkoan adineko ezinduentzako plazak eskuratzeko eta esleitzeko araubidea ezartzen duen apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuan ezarritako moduan.

9. artikulua. Mendaroko Eguneko Zentroaren eta erabiltzailearen arteko kontratua.

Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu eskuduna izango da Eguneko Zentroa sartzeko eskaerak baimenduko edo ukatuko dituen organoa.

Eguneko Zentroan sartzeko baimentzen bada, sarrera kontratua formalizatuko da eta, hala, Mendaroko Eguneko Zentroaren eta pertsonaren arteko harreman juridikoa hasiko da. Pertsona erabiltzaile bihurtuko da.

Kontratua sinatzeak esan nahi du bi aldeek arautegi honen edukia onartzen dutela, borondatez eta jakinaren gainean.

Sartzen den egunetik zentroa egokitzeke bi hilabeteko epea zabalduko da, eta zentroak eta erabiltzaileak zerbitzua egokia izan den baloratuko dute.

10. artikulua. Sarrera eta egokitzeke aldía.

1. Sarrera onartu ondoren, eskatzaileak eguneko zentroa adierazitako egunean joan behar du, edota erabakitako sarrera egunetik hasi eta gehienez bi egunen barruan.

2. Zentroan sartzen ez bada ezarritako epean eta erabiltzaileari egotz dakiokkeen arrazoiren batengatik, erabiltzaileak 3 egun gehiago izango ditu eguneko zentroan hasteko. Hiru egun horiek plaza-erreserbako egun gisa zenbatuko dira, eta erabiltzaileak «plaza-erreserbako» egoerari dagokion zatia ordaindu beharko du. Bost egun igaro ondoren interesduna ez bada zentroa itzuli arrazoi justifikaturik gabe, izapidetutako espedientetik eratorritako eskubideei uko egiten diela ulertuko da.

7.2. Requisitos de acceso al Centro de Día.

Las personas mayores que deseen solicitar el acceso a los equipamientos de servicios de día deberán cumplir los siguientes requisitos:

- a) Tener cumplidos 60 años.
- b) Estar empadronado y residir de manera efectiva en algún municipio del Territorio Histórico de Gipuzkoa en el momento de presentar la solicitud o tener el certificado de residencia y empadronamiento en cualquier municipio de la Comunidad Autónoma en el momento de la solicitud de ingreso.
- c) Estar valorada como persona en situación de dependencia.
- d) Disponer del informe de orientación por el que se determine la idoneidad del recurso, a través de la herramienta de valoración y orientación señalado al efecto por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

7.3. Restricciones al derecho de acceso.

- a) Personas que precisen de una asistencia sanitaria especializada, al requerir un tratamiento o técnicas médica o de enfermería de nivel asistencial superior a las dotaciones propias de este tipo de servicios.
- b) Personas que estén afectadas de una enfermedad infecciosa de tal naturaleza que no pueda garantizarse la prevención del contagio a otras personas usuarias, aun si el centro adopta medidas de prevención universal.
- c) Personas que presenten graves trastornos de comportamiento que distorsionen el normal funcionamiento del centro, que afecten a la normal convivencia en el mismo y o supongan un riesgo a la seguridad de terceras personas o a sí mismas.

Artículo 8. Aportación económica de la persona usuaria.

Las personas usuarias del Centro de Día deberán contribuir a los costes del servicio de acuerdo con los principios de contribución económica y progresividad, en la manera establecida por el Decreto Foral 20/2002, de 30 de abril por el que se regula el régimen de acceso y adjudicación de plazas para personas mayores dependientes en Gipuzkoa.

Artículo 9. Contrato del Centro de Día de Mendar y las personas usuarias.

Será el departamento competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa el órgano que autorizará o denegará la solicitud de acceso al Centro de Día.

Si se autoriza el ingreso en el Centro de Día, se formalizará el contrato de ingreso, iniciándose así la relación jurídica entre el Centro de Día de Mendar y la persona. La persona se convertirá en usuario.

La firma del contrato supone la aceptación del contenido del presente reglamento por ambas partes, de forma voluntaria y consciente.

A partir de la fecha de ingreso se inicia un periodo de adaptación de dos meses, en el que, tanto el centro como la persona usuaria harán una valoración de la idoneidad del recurso.

Artículo 10. Ingreso y periodo de adaptación.

1. Una vez aceptado el ingreso, el solicitante debe acudir al centro de día en la fecha indicada o en el plazo máximo de dos días desde la fecha de ingreso acordada.

2. Si en ingreso en el centro no se realiza en el plazo establecido y por causa imputable a la persona usuaria, éste dispondrá de 3 días más para incorporarse, computándose estos 3 días como de reserva de plaza, y debiendo la persona usuaria abonar la parte correspondiente a la situación de «reserva de plaza». Si pasados 5 días el interesado no se ha incorporado al centro sin causa justificada, se entenderá que éste renuncia a los derechos derivados del expediente tramitado.

3. Baldin eta, gorabehera berezi batzuk izan dituelako, jarritako egun edo epean joan ezin badu, interesatuak eguna aldatzea eska dezake, edota joateko epea luzatzea, Udalaren gizarte zerbitzuekin beste egun edo epe bat jarritz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Departamentu eskudunak hala erabaki ostean. Hori horrela bada ere, inguruabarrak halakoak direlako, eman dakioke plaza eskatzaileen zerrendako beste pertsona bati, lehen eskatzailea horrela beste plaza huts baten zain geratuko delarik.

4. Zentroan sartu aurretik edo, nolahi ere, egun berean, zentroak zentroaren funtzionamendua arautzen duten arauen berri emango dio etorkizuneko erabiltzaileari, hizkera eta ulergarritasuna erabiliz. Zentroan sartzeak arau horiek onartzea ekariko dio erabiltzaileari.

5. Egoitzan sartu eta lehen bi hilabeteetan zentroaren ezauzgarrietara eta funtzionamendura egokitzeke aldia izango dute eta, era berean, elkarbizitzako gutxieneko ohiturak hartzeko ere, han bizi diren guztiak ongi zainduta egon eta ongi bizi daitezzen. Zentroko zuzendariak edo, hark eskuordetuta, erabiltzailearen erreferentziatzeko pertsonak sortuko diren arazoez une oro hitz egingo dute erabiltzailearekin eta ongi ohitzeko beharrezko irtenbideak aurkituko dituzte elkarrekin.

6. Erabiltzailearekin batera konponbideak lortzen saiatu ondoren, erabiltzailea zentrorra ez dela egokitu ikusten bada, edo zentroko arduradunek, oinarritzko gizarte-zerbitzuek txostena egin ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu eskudunari jakinaraziko diote, eta hark egoera ebaluatu eta ebatziko du.

7. Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu eskudunak hartutako erabakia behar bezala jakinaraziko zaio erabiltzaileari eta horren legezko ordezkariari, eta 10 eguneko epea izango dute egokiak iruditzen zaizkien alegazioak egiteko.

8. Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu eskudunak, alegazioak aztertu eta gero, dagokion erabakia hartuko du. Erabiltzaileak zentroa uztea erabakitzen badu, alternatiba bat proposatuko du.

11. artikulua. Plazen erreserben erregimena.

Ospitaleratzeagatik, gaixotasunagatik edo oporregatik erabiltzailea zentroan ez badago, plaza erreserbatu egingo da, ezarritako kuotaren % 75 aplikatuta. Plazaren erreserba arau hauen arabera egingo da:

11.1. Irizpide orokorra.

Plazaren erreserba 7. egunetik aurrera aplikatuko da, gehienez ere hiru hilabetez. Hala, eguneko zentrorra joaten ez den lehenengo 6 egunetan, ekarpenaren % 100 fakturatuko zaio erabiltzaileari, eta zazpigarren egunetik aurrera, ekarpenaren % 75.

Plaza-erreserbaren jakinarazpena ondorio ekonomikoak sortzen direnean egin behar da, hau da, bertaratzen ez den 7. egunean hasiko da.

Plaza-erreserbaren amaiera benetan gertatzen denean jakinaraziko da, eta ez lehenago, erreserbaren egoeran aldaketak gerta baitaitezke.

Erabiltzailea zentrorra joaten ez bada, zerbitzuaren udal-arduradun teknikoari jakinaraziko zaio; hurrena noiz joango den ere jakinaraziko da.

11.2. Erreserba, gaixotasunagatik.

Erabiltzailea egun solte batzuetan zentrorra joaten ez bada, gaixo dagoelako, % 100a fakturatuko zaio, plaza erreserba aplikatzeko zirkunstantzia gertatzen ez bada betiere.

11.3. Erreserba, ospitalizazioagatik.

Ospitalizazioa programatuta baldin badago, plaza erreserba lehenengo egunetik aplikatuko da, familiak zentroari astebete lehenago, gutxienez, jakinarazten badio.

3. En el caso de que, por circunstancias especiales, no pueda acudir en el día o plazo señalado, el interesado podrá solicitar el cambio de fecha o la ampliación del plazo de desplazamiento, mediante un nuevo día o plazo con los servicios sociales municipales, previo acuerdo del Departamento competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa. No obstante, lo anterior, por circunstancias concurrentes, podrá concederse plaza a otra persona de la lista de solicitantes, quedando el primer solicitante a la espera de nueva vacante.

4. Con carácter previo al ingreso, o en todo caso el mismo día, el centro informará a la futura persona usuaria de las normas que rigen el funcionamiento del centro, en un lenguaje y de una forma comprensible para la persona. El ingreso en el Centro conllevará para la persona usuaria la aceptación de dichas normas.

5. Durante los dos primeros meses de ingreso dispondrán de un periodo de adaptación a las características y funcionamiento del centro, así como de unos hábitos mínimos de convivencia que permitan a todas las personas residentes estar bien atendidas y vivir bien. El director o directora del centro o, por delegación de este, la persona de referencia del usuario o usuaria, hablarán en todo momento con él o ella y encontrarán las soluciones necesarias para familiarizarse.

6. En el caso de que, una vez intentadas las soluciones junto con la persona usuaria, se detecte que la persona usuaria no se ha adaptado al centro o los responsables del centro, previo informe de los servicios sociales de base, lo comunicarán al departamento competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que evaluará y resolverá la situación.

7. El acuerdo adoptado por el departamento competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa será debidamente notificado a la persona usuaria y a sus representantes legales, que dispondrán de un plazo de 10 días para formular las alegaciones que estimen oportunas.

8. El departamento competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa, una vez analizadas las alegaciones, adoptará la decisión correspondiente. Si a la persona usuaria decide abandonar el centro, propondrá una alternativa.

Artículo 11. Régimen de reservas de plaza.

En caso de que, a la persona usuaria, bien por hospitalización, enfermedad o vacaciones este ausente en el centro se procederá a la reserva de la plaza aplicando el 75 % de la cuota establecida. La reserva de plaza se registrará por las siguientes normas:

11.1. Criterio general.

La reserva de plaza se aplicará a partir del día 7, durante un máximo de tres meses. Así, durante los 6 primeros días que no acuda al centro de día, se facturará al usuario el 100 % de la aportación y a partir del séptimo día, el 75 % de la aportación.

La comunicación de esta reserva de plaza debe hacerse cuando surtan los efectos económicos, es decir, el inicio será el 7.º día de no asistencia.

La finalización de la reserva de plaza se comunicará cuando efectivamente se produzca y no antes, ya que se pueden producir cambios en el estado de la reserva.

En el caso de que la persona usuaria no acuda al centro, se informará al responsable técnico municipal del servicio, así como de la fecha de la próxima asistencia.

11.2. Reserva por enfermedad.

Si a la persona usuaria no acude al centro en días sueltos por enfermedad, se le facturará el 100 %, siempre que no se dé la circunstancia de aplicar la reserva de plaza.

11.3. Reserva por hospitalización.

Si la hospitalización está programada, la reserva de plaza se aplicará desde el primer día, siempre que la familia lo comunique al centro con una semana de antelación.

Ospitalizazioa urgentziazkoa izan bada, irizpide orokorra aplikatuko da (% 100a lehenengo 6 egunetan eta % 75a zazpigarren egunetik aurrera).

11.4. Oporrengatik erreserbak.

Programatutako oporrengatik egiten den erreserba plaza lehenengo egunetik aplikatuko da, familiak zentroari astebete lehenago, gutxienez, jakinarazten badio.

11.5. Erreserba, aldi baterako egonaldiagatik.

Aldi baterako egonaldiagatik egiten den plaza erreserba lehenengo egunetik aplikatuko da, familiak zentroari astebete lehenago, gutxienez, jakinarazten badio.

Aldi baterako emandako urgentziazko egonaldien kasuan, irizpide orokorra hartuko da (% 100a lehenengo 6 egunetan eta % 75a zazpigarren egunetik aurrera).

Erreserba hori 3 hilabetekoa izango da, gehienez ere.

11.6. Eguneko zentroa - aldi baterako egonaldia.

Aldi baterako egonaldia eman zaion erabiltzaile batek zentroa erabiltzen jarraitu ahal izango du, betiere familiak eguneko zentrotik aldi baterako egonaldia duen zentrorako garraioa bere gain hartzen badu.

Kasu horretan, eguneko zentroko zerbitzuak erabiltzen jarraitzean, ez da plazaren erreserba aplikatuko, eta interesdunak erabiltzailearen ekarpenaren % 100 eta aldi baterako egonaldirako ezarritako kuotaren % 100 ordaindu beharko du.

Bi errekurtsioen konkurrentziaren salbuespenezko egoera horrek ezingo du hilabete bat baino gehiago iraun.

12. artikulua. Bajarako arrazoiak.

Hauek dira eguneko zentroaren zerbitzuan baja emateko arrazoiak:

- Borondatezko baja.
- Zentroko gainerako erabiltzaileekin batera bizitzeko ezintasuna.
- Mendekotasun-maila aldatzea, eta horrek arreta espezializatua behar izatea, betiere zentroak ezin badu eman.
- Beste zerbitzu batera lekualdatzea.
- Dagokion diru ekarpena ez egitea. Halakoetan, zerbitzua amaitzeak ez du esan nahi Udalarekin ordura arte izandako zorrak ez dituenik ordaindu beharko.
- Heriotza.
- Justifikaziorik gabe zentrorara ez joatea, urtean 30 egun baino gehiagoz. Onuradunaren egoeran emandako aldaketen berri ez ematea.
- Zentroak ezarritako barne erregimeneko arautegia ez onartzea eta/edo ez betetzea.

13. artikulua. Plazako baja jakinaraztea eguneko zentroan.

Baja zentroan jakinaraziko da zentrorara joandako azken egunaren datarekin (egun hori ere ordaindu egiten da).

Egun berean errekurtsio batetik bestera aldatuz gero:

- Altako eguna harrera zentroak zehaztuko du, erabiltzaileak egun horretan jangela zerbitzua erabiltzen badu; eta
- Jatorriko zentroarentzat bajako eguna izango da eguerdian jangela zerbitzua erabiltzen duen azken eguna.

Egun hori plaza erreserbaren amaiera egun bera izan daiteke.

Si la hospitalización ha sido de urgencia, se adoptará el criterio general (100 % durante los 6 primeros días y 75 % a partir del séptimo día).

11.4. Reserva por vacaciones.

La reserva de plaza por motivo vacaciones programadas, se aplicará desde el primer día, siempre que la familia lo comunique al centro como mínimo con una semana de antelación.

11.5. Reserva por estancia temporal.

La reserva de plaza por motivo de una estancia temporal se aplicará desde el primer día, siempre que la familia lo comunique al centro como mínimo con una semana de antelación.

En estancias temporales concedidas de urgencia se adoptará el criterio general (100 % durante los 6 primeros días y 75 % a partir del séptimo día).

La duración máxima de esta reserva será de 3 meses.

11.6. Concurrencia centro de día - estancia temporal.

Si a una persona usuaria al que se le ha concedido una estancia temporal podrá seguir haciendo uso del centro siempre y cuando la familia asuma el transporte del centro de día al centro en el que disfruta de la estancia temporal.

En este caso, al seguir haciendo uso de los servicios del centro de día no se aplicará la reserva de plaza, debiendo abonar el interesado el 100 % de la aportación de usuario y el 100 % de la cuota establecida para la estancia temporal.

Esta situación excepcional de concurrencia de los 2 recursos no podrá mantenerse más de 1 mes.

Artículo 12. Causas de baja.

Las causas de baja del servicio de centro de día serán las siguientes:

- Baja voluntaria.
- Imposibilidad de convivencia con el resto de los usuarios de Centro.
- Variación del grado de dependencia que suponga la necesidad de una atención más especializada, y que el centro no pueda dispensarla.
- Traslado a otro servicio.
- No efectuar la aportación económica que le corresponda. En este caso, la extinción del servicio no significa que se le exima del pago de las deudas hasta ese momento contraídas con el Ayuntamiento.
- Fallecimiento.
- La inasistencia injustificada al centro durante más de 30 días al año. No comunicar los cambios introducidos en la situación del beneficiario.
- No aceptar y/o incumplir la normativa de régimen interno establecida por el centro.

Artículo 13. Comunicación de baja de plaza en el Centro de Día.

Se comunicará la baja en el centro de día con la fecha de último día de asistencia (ese día también se abona).

Si se traslada de recurso en el mismo día:

- La fecha de alta la determinará el Centro de recepción en caso de que el usuario utilice el servicio de comedor en ese día y
- La fecha de baja para el centro de origen será el último día de asistencia en el que utilice el servicio de comedor al mediodía.

Esta fecha puede ser coincidente con el fin de reserva de plaza.

14. artikulua. Eguneko zentroaren funtzionamendu arauak.

Gaixotasunak pairatzeko arriskua dela eta, garrantzitsua da derrigorrez bete behar diren osasun arauak erreparratzea:

14.1. Honako sintoma edo egoera hauek dituzten erabiltzaileei ez zaie sarrera onartuko:

- Zikinkeria eta higiegi falta.
- Sukarra.
- Nekea.
- Beherakoa, mukirekin eta/edo odolarekin.
- Gonbitoak.

– Erabiltzaileentzako arriskutsuak izan daitezkeen beste ezaugarri batzuk.

– Langileentzako eta gainerako erabiltzaileentzako arriskua dakarten jokabide-alterazioak.

Sukarra badu edo, oro har, txarrera egiten badu, familiari edo arduradunari abisatu behar da. Horiek lehenbailehen joan behar dute eguneko zentrori, erabiltzailea dagokion zerbitzu medikura eramateko (osasun zentroa, ospitalea...).

14.2. Erabiltzaileak eusteko elementuren bat behar badu, jarri egingo zaio, bere osasuna zaintze aldera.

14.3. Erabiltzaileak medikuarengana joan behar badu, familia arduratuko da horretaz. Urgentzia kasuan, zentroa arduratuko da medikuarengana eramateaz.

14.4. Medikuen aginduz ospitalean ingresatu behar badu, familia egingo da kargu.

14.5. Zentroak arazoren bat ikusten badu erabiltzaileen osasun fisikoan eta mentalean, familiari abisatu behar dio.

14.6. Erabiltzaileak zentroan medikazioa hartu behar badu, bertara eraman behar du.

14.7. Erabiltzaileak higiegi paketeak erabili behar baditu, zentrori eraman behar ditu.

14.8. Erabiltzailearen osasun egoeran aldaketaren bat badago, zentroari jakinarazi behar da eta behar diren txostenak eman behar dira.

14.9. Ospitalizazio kasuan, etxera bueltatu eta zentrori joan aurretik, medikuen alta txostena eman behar duite zerbitzuko udal teknikari arduradunari, sartzeko unea balora dezan.

14.10. Erabiltzailearen segurtasunaren gaineko erantzukizuna familiarena izango da, garraioaz arduratzen diren langileek bilketa-gunean jaso ez badute.

14.11. Erabiltzailearen batek jarrera aldaketa larriak baditu eta gainerako erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko, erabiltzaileak ezin izango du bertan jarraitu.

14.12. Erabat debekatuta daude zentroko langileei eskupekoak eta opariak ematea, bai erabiltzaileen aldetik, bai senideen aldetik.

14.13. Erabiltzailearen erantzukizuna senideei dagokie, eta, beraz, Udalak ez du bere gain hartuko araudian jasota ez dauden arreten ardura.

14.14. Kexa edo erreklamazio bat aurkezteko, zentroko arduradunarengana joan behar da.

14.15. Azken batean, jasotako erantzunarekin edo irtenbidarekin ados ez bazaude, Udalera joan behar izango duzu, kexa idatziz aurkeztuta.

14.16. Lagunen eta senideen bisitak modu librean egingo dira, bazkalorduan eta siesta orduan izan ezik.

14.17. Zentroak astero jakinaraziko die senideei, erregistro fitxa baten bidez, erabiltzaile bakoitzari dagokion informazioa, eta

Artículo 14. Normas de funcionamiento del Centro de Día.

Debido al peligro de contraer enfermedades, es importante observar unas normas sanitarias y de obligado cumplimiento:

14.1. No se aceptará la entrada de aquellas personas usuarias que presenten los siguientes síntomas o situaciones:

- Suciedad y falta de higiene.
- Fiebre.
- Fatiga.
- Diarreas con mucosidad y/o sangre.
- Vómitos.

– Otros que puedan conllevar un riesgo para el resto de las personas usuarias.

– Alteraciones de conducta que conlleven un riesgo para el personal y resto de personas usuarias.

En caso de fiebre o empeoramiento general se avisará a la familia o persona responsable, quienes deberán acudir rápidamente al Centro de Día para acompañar a la persona usuaria al servicio médico que corresponda (centro de salud, hospital, etc.).

14.2. Si la persona usuaria necesita algún elemento de sujeción, se le colocará para preservar su salud.

14.3. En caso de que la persona usuaria tenga que ir al médico, la familia deberá ocuparse de ello. En caso de urgencia el centro se encargará de hacerlo.

14.4. En caso de ingreso hospitalario por prescripción facultativa, se hará cargo la familia.

14.5. Si el centro observara cualquier problema en la salud física y mental de sus usuarios avisará a la familia.

14.6. Si la persona usuaria requiere tomar medicación en el centro, deberá llevarla al mismo.

14.7. Si la persona usuaria, en caso de que requiera del uso de paquetes de higiene, deberá llevarlos al centro para su uso.

14.8. Si hay algún cambio en el estado de salud de la persona usuaria, deberá comunicarse al centro y aportarse los informes oportunos.

14.9. En caso de hospitalización, al regreso al domicilio, antes de acudir al centro, deberán aportar el informe médico de alta al responsable técnico municipal del servicio el cual valorará el momento de ingreso.

14.10. La responsabilidad sobre la seguridad de la persona usuaria será de la familia, tanto en cuando el personal encargado del transporte no lo haya recogido en el punto de recogida.

14.11. En el caso de que alguna persona usuaria presente graves cambios de actitud y al objeto de garantizar la seguridad del resto de usuarios, éste no podrá permanecer en el mismo.

14.12. Están terminantemente prohibidas las propinas y regalos a los empleados del centro, tanto por parte de las personas usuarias como la de sus familiares.

14.13. La responsabilidad de la persona usuaria corresponde a sus familiares, por lo que el Ayuntamiento no se responsabilizará de aquellas atenciones que no están recogidas en el reglamento.

14.14. Para plantear una queja o reclamación, se ha de acudir a la persona responsable del Centro.

14.15. En última instancia, si no se está de acuerdo con la respuesta o solución recibida, se podrán dirigir al Ayuntamiento, presentando la queja por escrito.

14.16. Las visitas de amigos y familiares se realizarán libremente, exceptuando el horario de comida y siesta.

14.17. El centro comunicará semanalmente a los familiares, a través de una ficha de registro, la información correspondiente

bertan puntu hauek jasoko dira: jarduerak, elikadura, jarrera, portaera, harremanak, botikak, iruzkinak.

14.18. Zentroak astebeteko aurrerapenarekin jakinaraziko dio erabiltzaileari asteko menua.

14.19. Zentroko erabiltzaileak ezarritako menuetara egokitu tuko dira. Bazkaltzeko erregimena berdina izango da guztientzat, medikuak agindu ezean.

14.20. Erabiltzaileak zentrorra eraman beharko du, gutxienez, ordezeko arropa-sorta bat (barruko arropa, galtzak/gona eta jertsea), behar bezala markatuta, baita garbitzeko elementuak ere (hortzetako eskuila, orrazia...). Erabiltzaileak arropa-jokoa erabiltzen duenean, arropa hori berriz jarri beharko du jarraian. Zentroak markatu gabeko arroparen ardura ez du bere gain hartuko.

14.21. Zentroko altzariak, tresnak eta gainerakoak norberarenak izango balira bezala zainduko dira.

15. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

Eguneko zentroak printzipio orokor hauek izango ditu:

– Autonomia printzipioa: erabiltzaileen autonomia sustatu beharko da, halako moldez non zerbitzuak ez dion beste laguntzarik emango, adinekoak duen menpekotasun fisiko edo psikikoak eskatzen duena baino.

– Parte hartzeko printzipioa: erabiltzaileak eguneko zentroan bete betean integratzeko, zentroko ekintzetan eta funtzionamendu orokorrean parte hartu dezaten sustatu beharko da.

– Integrazio printzipioa: eguneko zentroaren asistentziari buruzko filosofiarekin bat, erabiltzaileak beren ohiko komunitatean mantentzera joko da.

– Globaltasun printzipioa: osoko atentzioa eskaini beharko da, osasun eta ongizatearen alorretan ahalik eta mailarik handiena lortzeko.

– Banan banako atentzioaren printzipioa: eguneko zentroko langileek banan banako arreta eman beharko dute, erabiltzaile bakoitzak dituen beharren arabera.

– Profesionalizazio printzipioa: eguneko zentroko langile guztiak duten maila profesionalaren arabera kualifikazio teknikoak eduki beharko dute. Hala ere, gizarte-boluntarioen lan osagarria aitoritzen da, eta ez da bazter utziko.

16. artikulua. *Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.*

16.1. Erabiltzaileen eskubideak:

Mendaroko Eguneko Zentroko erabiltzaileek, honako eskubide hauek izango dituzte:

1. Eguneko Zentrorra joateko eta bertan asistentzia jasotzeko eskubidea, sexua, arraza, erlijioa, ideologia edo beste edozein baldintza edo gorabehera pertsonal edo sozial direla eta, inolako bereizketarik egin gabe.

2. Arreta soziala, osasun, hezkuntza eta kultura arlokoa jasotzeko eskubidea, eta oro har, garapen psikofisiko egokia izateko beharrezkoak diren premia pertsonalak asetzeko eskubidea.

3. Erabiltzaile diren aldetik, beren ardurapekoa edo interesoak den edozein gairi buruzko informazioa eta aholkua jasotzeko eskubidea.

4. Norberaren espedientean jasotako informazioa jakiteko eskubidea.

5. Banakako arreta pertsonalizatua, zuzentasunez, errespetuz eta ulermenez jasotzeko eskubidea. Hala nola, bai langileen aldetik, bai gainontzeko erabiltzaileen aldetik, trataera duina jasotzeko eskubidea.

a cada usuario, en la que constarán los siguientes puntos: actividades, alimentación, actitud, comportamiento, relaciones, medicamentos, comentarios.

14.18. El centro, comunicará por escrito a la persona usuaria, el menú semanal con una semana de antelación.

14.19. Las personas usuarias del Centro se ajustarán a los menús establecidos. El régimen de comidas será el mismo para todos, salvo prescripción médica.

14.20. La persona usuaria deberá llevar al centro, al menos un juego de ropa de repuesto, (ropa interior, pantalón/falda y jersey) debidamente marcada así como elementos de aseo (cepillo de dientes, peine,). En el momento que, el juego de ropa sea utilizada por la persona usuaria, esta deberá ser repuesta seguidamente. El centro no se hará cargo de la ropa no marcada.

14.21. Se cuidarán como propios los muebles, enseres y demás cosas del centro.

Artículo 15. *Principios generales.*

El centro de día se registrá por los siguientes principios generales:

